

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

**JAZARPEN SOZIALAREN ETA AHOZKO JAZARPENAREN
PREBENTZIOA ANTZERKI FOROA ERABILIZ: ESKU-HARTZE BATEN
PROPOSAMENA ETA INPLEMENTAZIOA**

ERANSKINAK

Egilea: Irati Aurtenetxe Garcia

Zuzendaria: Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor

Leioan, 2023ko ekainaren 6an

Eranskinen aurkibidea

1. eranskina: esku-hartzearen azalpena..... 2

2. eranskina: 1 eta 2 jardueraren fitxa..... 21

3. eranskina: Lehenengo saioaren behaketa taula (heteroebaluazioa)..... 22

4. eranskina: emozioen taula..... 24

5. eranskina: bizkarrean jartzeko adjektiboak..... 24

6. eranskina: metakognizio eskailera (autoebaluzioa)..... 27

7. eranskina: metakognizio eskaileraren aurkezpena..... 28

8. eranskina: antzerki foroaren aurkezpena..... 29

9. eranskina: diana (koebaluzioa)..... 33

10. eranskina: antzezlanak/parte-hartzea ebaluatzeko errubrika (heteroebaluazioa). 34

11. eranskina: esku-hartzean zehar jasotako emaitzak..... 34

12. eranskina: eskola jazarpenari buruzko posterra..... 43

13. eranskina: ikusle ezberdinen posterra..... 44

14. eranskina: bizkarrean jarritako mezu positiboen adibideak..... 46

15. eranskina: jazarpen egoeraren gidoiaren adibidea..... 47

1. eranskina: esku-hartzearen azalpena

1. multzoa: norberaren adimen emozionala eta bakoitzaren eta besteenganako pertzepzioa

Multzoa: 1	Saioa: 1
<p>1.saioa: bakoitzaren ezaugarriak eta autokontzeptua landuko da. Horretaz gain, taldekideen arteko erlazioak sendotzen saiatuko da.</p>	
<p>Arloa/Konpetentzia espezifikoak/Deskriptoreak</p> <p>Balio zibikoetan eta etikoetan hezte</p> <p>1. Konpetentzia espezifikoa: norbere buruari eta inguruneari buruzko gaiak eztabaidatzea eta argudiatzea, informazio fidagarria bilatuz eta aztertuz, eta horri buruzko jarrera erreflexiboa sortuz, norberaren identitatea eraikitzeko garaian autoezagutza eta autonomia pertsonala sustatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● KPSII1: bere emozioak, ideiak eta jokabide pertsonalak ezagutzen ditu, eta tentsio- edo gatazka-egoeretan horiek kudeatzeko estrategiak erabiltzen ditu, zenbait portaera erregulatzeko gai izanik, aldatetara egokituz eta harmonizatuz, bere helburuak lortzeko. ● KPSII4: jarrera kritikoak hartzen ditu hausnarketa-prozesu gidatuak gertatzen direnean. <p>4. konpetentzia espezifikoa: zalantzan jartzeko eta argudiatzeko trebetasuna garatzea, pentsamendu abstraktua oinarritzen duten pentsamendu-abileziak erabiliz, diziplinaren oinarritzko ezagutzekin lotutako elkarrizketa kooperatiboetan parte hartzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● HKK1: gertakariak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak edo sentimenduak ahoz adierazten ditu, argi eta bere ingurune pertsonal, sozial eta hezitzaileko eguneroko testuinguruetara egokituta, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzaz eta errespetuz, bai informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai lotura pertsonalak eraikitzeko. <p>5. konpetentzia espezifikoa: autoestimua eta ingurunearekiko enpatia garatzea, norberaren emozioak eta sentimenduak identifikatuz, kudeatuz eta adieraziz, eta besteenak ezagututa eta baloratuz, norberaren, besteen eta naturako gainerakoen zaintzan eta estimuan oinarritutako jarrera hartzeko.</p>	

- KPSII1: bere emozioak, ideiak eta jokabide pertsonalak ezagutzen ditu, zenbait portaera erregulatzeko gai izanik.
- HKK1: Gertakariak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak edo sentimenduak idatziz adierazten ditu, bere ingurune pertsonal, sozial eta hezitzaileko eguneroko testuinguruetara egokituta.

Helburu orokorra

Norberaren autokontzeptua eta bakoitzaren eta besteenganako pertzepzioa eraikitzea, emozioak plazaratuz gurekiko eta besteekiko harremanak hobetzeko.

Helburu didaktikoak

1. Norberaren ezaugarriei buruz hausnartzea.
2. Beste batzuekin dituen harremanei buruz pentsatzea.
3. Autokontzeptua garatzea, besteengandik ezberdintzen diena (ezaugarriak, jarrerak, aspektu fisikoa) antzemanda.
4. Nor bere burua hurbileko eremuan kokatzen ikastea.
5. Norberaren emozioak eta sentimenduak hausnarketaren bidez antzematea.
6. Elkarrizketan parte-hartze aktiboa izatea.

Edukiak

1. Autoezagutza eta autokontzeptua.
2. Autopertzepzioa eta besteenganako pertzepzioa.
3. Sentimenduen eta emozioen kudeaketa.
4. Norberaren egoera sozialaren hausnarketa.
5. Norberaren sentipenen inguruko hausnarketa.

Denboralizazioa

60 minutu: 15 minutu (1. jarduera), 20 minutu (2. jarduera) eta 25 minutu (3. jarduera).

Materiala

Ikasleek bete behar duten orria eta hori betetzeko beharko duten materiala: boligrafoak, margoak, errotulkiak...

Taldekatzea

1. eta 2. jarduerak barkaka jorratuko dituzte eta 3. jarduera talde handian.

Jardueraren deskripzioa eta jarraibideak

1. Jarduera: Nola ikusten dugu gure burua? Zelan tratatzen dut nire burua? Nola ikusten ditut besteak?

Saioa hasteko, ikasleak banaka jarriko dira eta ikasleei ez zaie zeri buruz hitz egingo den azalduko. Orduan, fitxa ([2. eranskina](#)) bat emango zaie galderekin. Fitxan ez da izenik jarriko, baina irakasleak nork idatzi duen jakiteko, klaseko zerrendako zenbakia idatzi beharko dute. Argi utzi behar zaie irakasleak bakarrik ikusiko duela idatzitakoa.

Oso garrantzitsua izango da saio osoan zehar leku seguru bat sortzea ikasleentzat beraien pentsamenduak edo sentipenak elkarbanatu ahal izateko.

Galderak, honako hauek izango dira:

1. Zeintzuk dira niri buruz gustatzen zaizkidan ezaugarriak?
2. Deskribatu zure burua hiru hitzetan eta hitz horien aukeraketaren zergatia adierazi.
3. Nire izaera gustatzen zait? Zergatik? Zerbait hobetzeko edo aldatzeko daukat?
4. Zer ekarpen egiten dizkiot nire lagunei?
5. Zergatik uste dut besteengandik ezberdintzen naizela?
6. Orokorrean gelan, patioan eta eskolan nola sentitzen naiz? Zergatik?

2. jarduera: nola sentitzen naiz?

Aurretik idatzi duten fitxa ([2. eranskina](#)) erabilia, marrazki bat egin beharko dute fitxaren bigarren orrialdean. Marrazki baten bidez, aurreko galderak erantzuteko zailtasunak izan dituzten ikasleek beste modu batean sentitzen dutena adierazteko aukera izango dute. Marrazkiak emozioak adierazteko tresna

oso baliagarriak dira, koloreek eta formek sentimenduak eta emozioak adierazten dituztelako. Orduan, aurreko galderaren gehigarri bezala, klaseko testuingurua aztertzeko oso egokia den tresna da.

Enuntziatuan esaldi hau jarriko zaie: “Imajinatu patioan zaudela, egin marrazki bat sentitzen duzuna adierazteko; adib. bakarrik zaude?, lagunekin?, haserre, urduri, pozik, lehiakor?...; nagusiagoekin nago edo nire adinakoekin; materiala erabiltzen nabil edo materialik gabe jolasten dut?...”

Marrazkian askatasunez margozteko eta adierazteko aukera izango dute, baina oso garrantzitsua izango da azpimarratzea patioko momentua izan behar dela eta bere burua margoztu beharko dutela. Koloreak edozein izan daitezke, hau da, ez zaie inolako jarraibiderik emango koloreak aukeratzeko momentuan.

3. Jarduera: erantzunei buruz hausnartzen.

Saioarekin bukatzeko, saioan sentitutakoarenik erlazionatzen duen hitzaren bat bakoitzak paper zati batean idatziko du. Sentimendu bat, egoera bat edo ezaugarri bat izan daiteke. Paperak, kutxa batean sartuko dira guztiz anonimoak izateko eta ondoren, ikasleen laguntzarekin banan-banan irakurtzen joango dira. Hau egin ostean, elkarrizketa bat sortuko da eta ondorio batzuk aterako dira saioan sentitutakoari eta adierazitakoari buruz hausnartzeko. Elkarrizketa irakasleak bideratuko du, horrela, hurrengo saioan landuko den gaiari (eskola jazarpena) sarrera bat egiteko.

Irakasleak egin ditzaken galdera batzuen adibideak:

- Paperetan agertzen diren hitzak edo esaldiak ezaugarri/sentimendu onekin ala deserosoekin erlazionatzen dira?
- Zuentzat erreza izan da ariketa egiterako momentuan erdian kokatzea eta bakoitzari buruz hausnartzea? Zergatik?

Irakasleak saioaren ostean ikasleen ariketa fitxak jaso eta aztertuko ditu. Aurretik aipatu bezala, irakasleak bakarrik fitxak ikusiko ditu. Fitxan eta marrazkietan aztertuko du eta horrela, gelaren egoera ezagutuko du, hurrengo saioetan beharrezko egokitzapenak egiteko.

Ebaluazioa

Saioa behaketa taularen bidez ebaluatuko da. Behaketa ([3. eranskina](#)) talde osoari jardueretan zehar egingo saio. Garrantzitsuena ebaluaketa honetan izango litzateke nork parte hartu duen antzematea eta horrekin batera, nor ez den ausartu edo ez duen parte hartu nabarmentzea. Gainera, ikasleek egindako fitxak eta marrazkiak jasoko dira eta erantzunak aztertuko dira, gelaren eta ikasle bakoitzaren egoeraren

berri izateko. Horretaz gain, ikasleek emozioen fitxa ([4. eranskina](#)) bete beharko dute sentitutako plazaratzeko.

2. multzoa: eskola jazarpena aztertzen

Multzoa: 2

Saioa: 2

2. saioa: eskola jazarpen gaiari hasiera emateko aurrezagutzak landuko dira eta horren ostean, eskola jazarpenari buruzko ariketa batzuk egingo dira.

Arloa/Konpetentzia espezifikoak/Deskriptoreak

Balio zibikoetan eta etikoetan hezte

1. konpetentzia espezifikoa: norbere buruari eta inguruneari buruzko gaiak eztabaidatzea eta argudiatzea, informazio fidagarria bilatuz eta aztertuz, eta horri buruzko jarrera erreflexiboa sortuz, norberaren identitatea eraikitzeke garaian autoezagutza eta autonomia pertsonala sustatzeko.

- HKK1: Gertakariak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak edo sentimenduak ahoz, eta bere ingurune pertsonal, sozial eta hezitzaileko eguneroko testuinguruetara egokituta, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzaz eta errespetuz, bai informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai lotura pertsonalak eraikitzeko.

2. konpetentzia espezifikoa: arau eta balio zibiko eta etikoei buruz gogoeta egitea eta argudiatzea, bizitza indibidual eta kolektiborako duten garrantzia antzemanaz, eta horiek modu eraginkorrean eta argudiatuan aplikatuz hainbat testuingurutan, bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzeko.

- HK1: bizikidetzak-arauei buruzko gogoeta egiten du, eta modu eraikitzailean, elkarrizketan eta inklusiboan aplikatzen ditu edozein testuingurutan.
- HK3: gaurkotasuneko balio eta arazo etikoei buruz hausnartu eta hitz egiten du, aurreiritziak eta estereotipoak baztertzeko eta diskriminazio eta indarkeria mota ororen aurka egiteko beharra ulertzen du.

Helburu orokorra

Eskola jazarpenaren, ahozko jazarpenaren eta jazarpen sozialaren definizioak osatzea, beste pertsona baten egoeran jarriz, rol edo jarrera ezberdinak antzemateko.

Helburu didaktikoak

1. Beste pertsona baten egoeran jartzea, rol edo jarrera ezberdinak antzeztuta.
2. Txarto sentitzekotan adierazten jakitea.
3. Eskola jazarpenaren deskribapena osatzea.
4. Ahozko jazarpena eta jazarpen soziala ezberdintzea.
5. Bakoitzak sentitu dituen sentimenduak identifikatzea

Edukiak

- Rol ezberdinak harremanetan.
- Sozializazioaren barneko jarrerak eta ezaugarriak.
- Eskola jazarpena: ahozko jazarpena eta jazarpen soziala.

Denboralizazioa

60 minutu: 25 minutu (4. jarduera) eta 35 minutu (5. jarduera).

Materiala

Orri zuriak hitzekin (aurretik irakasleak prestatutakoa) eta zeloak (bizkarrean jartzeko). Bostgarren jarduerarako, kartulina eta errotuluak beharko dira.

Taldekatzea

4. Jarduera: talde handian egingo da.

5. Jarduera:

- Talde handian: sentitutakoa (15 min)
- Laukoteka: eskola jazarpenaren aurreiritziak (5 min)

- Talde handian: eskola jazarpenaren definizioa osatu (15 min)

Jardueraren deskripzioa eta jarraibideak

4. Jarduera: besteek egiten dutena guri eragiten digu.

Bigarren saio honetan, jazarpenaren gaiari hasiera eman nahi zaio. Horretarako, jazarpenean parte hartzen duten jendearen ezaugarriak, jarrerak antzeztuko dira. Hau da, irakasleak ikasle bakoitzari aurretik prestatutako jarrerak, rolak eta ezaugarriak esleituko die paper batean eta ikasleek bizkarrean jarri beharko dituzte paperean dagoena ikusi gabe ([5. eranskina](#)).

Oso garrantzitsua da kontu handiz irakasleak ezaugarriak, jarrerak edo rolak esleitzea, klasean dauden liskarrak, arazoak, rolak, aurreiritziak... kontuan izan behar dituelako, inor mindua ez sentitzeko.

Honako hauek izango dira irakasleak jarri ahal dituen ezaugarriak, rolak eta jarrerak:

Atseginak	Desatseginak
Liderra, alaia, arduratsua, erreferentea, jatorra, laguntzeko prest, ederra, eskuzabala, ausarta, fidagarria.	Ahula, "gafotas", potoloa, argala, iraindua, baztertua, lotsatia, zikina, berekoia, zaharra, haur jarrera, desatsegina, itsusia.

Jardueran egin beharrekoa da, bizkarrean dituzten ezaugarri, jarrera edo rol horiek kontuan izanda, irakasleak haien artean tratatu beharko dira. Adibidez: bizkarrean liderra dela jarrita duenak, ez du jakingo liderra dela (ezin duelako ikusi bizkarrean daukana) baina besteek (bizkarrean daukana esan gabe) horrela tratatuko dute. Aldiz, baztertuaren rola daukana, baztertu egin beharko dute.

Oso garrantzitsua da jarduera honetan antzezte, hau da, besteek bizkarrean daukaten ezaugarrien arabera jokatzeko.

Ondoren, jarduerari buruzko hausnarketa egingo da, eta bakoitzak adieraziko du zelan sentitu den bai ezaugarri, jarrera edo rol atseginak bai desatseginak izan dituztenak. Adibidez, horrelako galderak planteatu daitezke:

- Eroso sentitu zarete zuen kideek modu txarrean tratatu zaituztenean?

- Normalean ez dituzuen rolak, jarrerak edo ezaugarriak izaterakoan eta horrela tratuak izan zaretenean arraroa egin zaizue? Egokia iruditu zaizue jaso duzuen tratua?

5. jarduera: jazarpena aztertzen eta definizioa osatzen.

Eskola jazarpenari buruzko lehenengo hurbilpenak egingo dira. Horretarako, talde txikietan jarriko dira, 4-5 pertsona, eta definizio bat osatu beharko dute. Ondoren, talde handian osatutako definizioak bateratuko dira eta irakasleak arbelean denon artean adostutakoa idatziko du. Hori bukatzerakoan, jazarpen soziala eta ahozko jazarpenak definituko dira. Horretarako, metodologia berdina erabiliko da, talde txikian hasiz eta handian definizio bateratu bat lortuz.

Bukaeran, behin definizio eta adibideak adostuta arbelean izanda, kartulina batean irudikatuko dira, klaseko horman itsasteko.

Irakaslearentzako gida: definizio hauek irakasleak oinarritzat hartu ditzake.

- Eskola jazarpenaren definizioa: Berdinen arteko abusuak eragindako biktimizazioa edo tratu txarrak jazarpen fisiko edo/eta psikologikoko jokabidea da, ikasleak beste baten aurka egiten duena, eta hura aukeratuz eraso errepikatuen biktima gisa. Lau oinarri: Biktima bat dago, erasotzaile bat (edo gehiago) dago (erasotzaile batek edo talde batek jazarpena eragin dezake), Biktima eta erasotzailearen artean desberdintasun egoera bat ematen da (biktimaren eta erasotzailearen arteko harreman hierarkikoa ematen da) eta jokabideek (indarkeria) denbora irauten dute, eta errepikakorrek dira (akzioak ez dira momentu puntual bateko gauzak, denborarekin errepikatzen dira)
- Ahozko eskola jazarpenaren ezaugarriak eta adibideak: biktimarengan boterea inposatzeko azkarrena da.
 - Zuzena: batez ere, irainak eta ezizenak. Horretaz gain, gutxiespena jendaurrean, akats fisikoak nabarmentzea, etab.
 - Zeharkakoa: beste pertsona bati buruz txarto hitz egitea.
- Jazarpen sozialaren ezaugarriak eta adibideak: zeharkako jazarpen mota bat bezala ematen da. Norbait baztertzea, hau da, taldeko partaide izaten ez uztea. Ez ikusiarena edo ez entzunarena egin biktimari.

Ebaluazioa

Ebaluaziorako taldean egindako kartulina ([12. eranskina](#)) kontuan hartuko da. Horren arabera, helburuak lortu diren eta kontzeptuak argi dauden zehaztuko da.

3. multzoa: ikuslearen garrantzia azpimarratzen

Multzoa: 3	Saioa: 3
-------------------	-----------------

3. saioa: ikusle edo lekukoaren rola aztertuko da, horrek duen garrantzia azpimarratuz. Ondoren, jazarpen egoerak aztertuko dira.

Arloa/Kompetentzia espezifikoak/Deskriptoreak

Balio zibikoetan eta etikoetan hezte

1. kompetentzia espezifikoa: norbere buruari eta inguruneari buruzko gaiak eztabaidatzea eta argudiatzea, informazio fidagarria bilatuz eta aztertuz, eta horri buruzko jarrera erreflexiboa sortuz, norberaren identitatea eraikitzeke garaian autoezagutza eta autonomia pertsonala sustatzeko.

- KPSII4: bere ikaskuntza hobetzeko ahalegin eta dedikazio pertsonalaren balioa ezagutzen du, eta jarrera kritikoak hartzen ditu hausnarketa-prozesu gidatuak gertatzen direnean.

2. kompetentzia espezifikoa: arau eta balio zibiko eta etikoei buruz gogoeta egitea eta argudiatzea, bizitza indibidual eta kolektiborako duten garrantzia antzemanaz, eta horiek modu eraginkorrean eta argudiatuan aplikatuz hainbat testuingurutan, bizikidetza baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzeko.

- HK1: bizikidetza-arauei buruzko gogoeta egiten du, eta modu eraikitzailean, elkarrizketan eta inklusiboan aplikatzen ditu edozein testuingurutan.

5. kompetentzia espezifikoa: autoestimua eta ingurunearekiko enpatia garatzea, norberaren emozioak eta sentimenduak identifikatuz, kudeatuz eta adieraziz, eta besteenak ezagututa eta baloratuz, norberaren, besteen eta naturako gainerakoen zaintzan eta estimuan oinarritutako jarrera hartzeko.

- KPSII3: besteen emozioak eta esperientziak ezagutu eta errespetatzen ditu.

Helburu orokorra

Eskola jazarpenean parte hartzen duten rola ezberdintzea, ikuslearen rola nabarmenduz, ikuslearen rola identifikatzeko eta ikuslearen garrantzia antzemateko.

Helburu didaktikoak

1. Jazarpenean ikuslearen rola identifikatzea.
2. Jazarpen egoerak aztertzea eta hartzen duten rola antzematea.
3. Besteenganako pertzepzioa hobetzea eta taldekidearen ezaugarri onak antzematea.
4. Taldeko partaide sentitzea.

Edukiak

- Ikuslearen rola jazarpenean.
- Elkarrekiko errespetua.
- Jazarpen kasuetan hartutako rola.
- Pertsonen ezaugarri atseginak.
- Besteenganako pertzepzioa.

Denboralizazioa

60 minutu: 15 minutu (6. jarduera), 20 minutu (7. jarduera), 15 minutu (8. jarduera) eta 10 minutu (ebaluazioa).

Materiala

Zeloa lurrean jartzeko (zinta amerikarra/prezintatzeko zinta) eta orri zuria, zeloa eta boligrafoa/errotulagailua.

Taldekatzea

Talde handian eta bakarka ebaluazioa egiteko.

Jardueraren deskribapena eta jarraibideak

6. jarduera: noizbait jazarpen kasuren bat ikusi dut?

Hirugarren saioari hasiera emateko, jazarpenean parte hartzen duen eragile bat aztertuko da, hain zuzen ere, ikuslearena edo lekukoarena. Marra bat jarriko da lurrean, zeloa erabiliz, eta mahaiak mugituko dira gela erdia libre egoteko. Jardueran, egoera batzuk aurkeztuko dira eta horrelakorik ikasleek ikusi badute, marraren gainean jartzeko esango zaie.

Aurkezten zaien egoerak honako hauek izan ahal dira:

- Noizbait pertsona bat ikusi dut beste pertsona iraintzen.
- Baztertuta ikusi dut ikasle bat ez zutelako berarekin egon nahi.
- Modu txarrean eta desatseginean erantzuten ikusi dut beste kide bat.
- Talde bat pertsona baten aurka egiten ikusi dut.
- Egoera desatseginetan ez dut parte hartu baina ez dut gelditu.
- Beste hainbat adibide...

Irakasleak egoeren zerrenda saiora eramatea egokiena izango litzateke, horrela, gela bakoitzari egokitu ahalko zaizkio aurkeztuko diren egoerak.

Gainera, ikasleek jarduera honetan haien esperientziak kontatu ahal izango dituzte eta horrekin jarduera jarraitu daiteke. Oso garrantzitsua da azpimarratzea ikuslearen edo lekukoaren rola lantzen ari dela jarduera osoan zehar, helburua noizbait guztiak izan direla lekuko azalratzea delako.

7. Jarduera: jazarpenean hartzen den rolari buruz hausnartzen.

Ikasleei azalduko zaie zer garrantzitsua den ikusleen rola/papera. Horretarako, aurreko ariketan landu diren egoerei buruz hitz egingo da. Haien sentimenduak adieraztera gonbidatuko zaie. Gainera, irakasleak ikusle edo lekukoaren garrantzia azpimarratuko du. Ondoren, irakasleak ikusle ezberdinak azalduko ditu definizio hauek emanda:

- Ikusle gaizkidea: erasotzaileak egiten duena babestuko du. Hasieran aipatutako erasotzaile pasiboa izango dena.
- Ikusle tolerantia: ez du zuzenean biktima erasotzen baina gertatzen dena ezagutzen du eta onartzen du.

- Ikusle neutroa: parte hartze zuzena arazoarekin ekiditen dutenak dira jakinda jazarpena gertatzen ari dela.
- Ikusle defendatzailea: biktima babestuko du eta irakasleei jazarpenaren berri emango die.

Definizioak eta motak azaldu ondoren, ikusle/lekuko bezala zer egingo luketen jazarpen kasu baten aurrean adieraziko da. Ikasleen ideiak jasoko dira arbelean.

Bukaeran, kartulina batean idatziko dute ikuslearen definizioa eta beheko aldean jazarpen egoera bat ikusterakoan egin beharreko esku-hartzeak idatziko dira, adibidez:

- Jazarpen egoera salatu inguruan dauden profesionalei/helduei: irakasleak, hezitzaileak, gurasoak...
- Biktima babestu, defendatu eta irakasleei jazarpenaren berri emango zaie.

8. jarduera: taldea sortu harremanak sendotuz.

Saioari bukaera emateko, paper zuri bat jarriko zaie sorbaldan ikasle bakoitzari eta boligrafo bat eskuan izanda, klasekideei mezu positibo edo gustatzen zaien ezaugarri bat idatziko diete. Horrela, bakoitzak orri bat jasoko du besteen mezu positiboekin. Mezuak positiboak izan behar dira, besteenganako pertzepzioa lantzeko. Jarduera honekin saioari bukaera emango zaio ([14. eranskina](#)).

Ebaluazioa

Jardueraren ebaluazioa metakognizio eskalera ([6. eranskina](#)) baten bidez egingo da. Behetik gora betetzen da. Irakasleak arbelean eskailera ([7. eranskina](#)) proiektatuko du eta betetzeko jarraibideak emango ditu.

4. multzoa: eskola jazarpen egoerei aurre egiten

Multzoa: 4	Saioa: 4-5
-------------------	-------------------

4. eta 5. saioa: antzerkia eta jazarpenaren erlazioa landuko da. Antzerki Foroaren metodologia erabiliko da eszenetarako. Eszenak antzetzuko dira eta esku-hartzeari bukaera emango zaio.

Arloa/Konpetentzia espezifikoak/Deskriptoreak

Balio zibikoetan eta etikoetan hezte

1. konpetentzia espezifikoa: norbere buruari eta inguruneari buruzko gaiak eztabaidatzea eta argudiatzea, informazio fidagarria bilatuz eta aztertuz, eta horri buruzko jarrera erreflexiboa sortuz, norberaren identitatea eraikitzeke garaian autoezagutza eta autonomia pertsonala sustatzeko.

- KAKK3: Bere nortasuna aberasten eta eraikitzen du, ingurunearekin eta gizartearekin elkarreaginez, adierazpen kultural eta artistiko sortzailearen bidez, bere gorputza integratuz eta konpetentzia afektiboak garatuz, besteekiko jarrera ireki eta inklusiboarekin.

2. konpetentzia espezifikoa: arau eta balio zibiko eta etikoei buruz gogoeta egitea eta argudiatzea, bizitza indibidual eta kolektiborako duten garrantzia antzemanaz, eta horiek modu eraginkorrean eta argudiatuan aplikatuz hainbat testuingurutan, bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzeko.

- EK1: Aurre egin beharreko beharrak eta erronkak ezagutzen ditu, eta ideia originalak lantzen ditu, sormen-trebetasunak erabiliz eta ideiek ingurunean sor ditzaketen ondorioez jabetuz, hautemandako beharrei erantzun dieten konponbide baliotsuak proposatzeko.
- KPSII1: Bere emozioak, ideiak eta jokabide pertsonalak ezagutzen ditu, eta tentsio- edo gatazka-egoeretan horiek kudeatzeko estrategiak erabiltzen ditu, zenbait portaera erregulatzeko gai izanik, aldaketetara egokituz eta harmonizatuz, bere helburuak lortzeko.

Arte-hezkuntza

3. konpetentzia espezifikoa: soinuaren, irudiaren, gorputzaren eta baliabide digital eta multimodalen aukerekin esperimentatzea, ikerketa-jardueren eta esperientzien bitartez, ideiak, sentimenduak eta emozioak sormenez adierazteko eta komunikatzeko.

- KPSII5: autoebaluazioko eta koebaluazioko prozesuetan parte hartzen du, bere mugak ezagutzeko eta ezagutza eraikitzeke prozesuan laguntza bilatzen jakinez.
- EK1: Aurre egin beharreko beharrak eta erronkak ezagutzen ditu, eta ideia originalak lantzen ditu, sormen-trebetasunak erabiliz eta ideiek ingurunean sor ditzaketen ondorioez jabetuz, hautemandako beharrei erantzun dieten konponbide baliotsuak proposatzeko.

4. konpetentzia espezifikoa: kolaborazioko kultura- eta arte-produkzioen diseinuan, elaborazioan eta zabalkundean parte hartzea, prozesuari balioa emanez eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertenezkiaren zentzua garatzeko.

- KE3: lagunduta, ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna identifikatzen du, errespetuzko eta enpatiazko jarrera hartuta, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat eta bizikidetzat hobetzeko tresnatzat hartuta.
- EK3: Ideia eta konponbide originalak sortzen ditu, zereginak planifikatzen ditu, beste batzuekin eta taldean lan egiten du, egindako prozesua eta lortutako emaitza baloratuta, ekimen ekintzaile bat aurrera eramateko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.

Helburu orokorra

Eskola jazarpenaren prebentzioa lortzea antzerkia erabiliz, egoera ezberdinei etorkizunean erantzun egoki bat emateko.

Helburu didaktikoak

1. Antzerkiaren onurak antzematea.
2. Talde lanean aritzea.
3. Eszenak jazarpen sozialarekin eta ahozko jazarpenarekin erlazioa izatea.
4. Elkarrekiko errespetua mantentzea.
5. Eszenak modu egokian antzeztea.
6. Parte-hartzea sustatzea.

Edukiak

1. Ahozko jazarpena eta ahozko jazarpena.
2. Antzerkiaren eta Antzerki Foroaren oinarriak.
3. Elkarrekintza eta talde lana.
4. Jazarpena eta bere egoerak.

Denboralizazioa

120 minutu: 20 minutu (9. jarduera), 20 minutu (10. jarduera), 60 minutu (11. jarduera), 15 minutu (12. jarduera) eta 5 minutu (ebaluazioa).

Materiala

Ez da materiala erabiliko. Antzezteko materialak erabiltzekotan, klasean bertan dagoena erabiliko da.

Taldekatzea

Antzerkiak taldeka egingo dira (laukote/boskotetan). Antzeztekoan talde handian egingo da.

Jardueraren deskribapena eta jarraibideak

9. jarduera: antzerkigintzan aritzen.

Saio honetan, jazarpenean ematen diren egoerak antzerkiaren bidez antzezteko eta horiei erantzuna emateko aukera egongo da. Horretarako, saioaren hasieran, antzerkiaren onurak eta Antzerki Foroaren metodologia azalduko zaie. Irakasleak ahoz egin dezake edo aurkezpen bat erabiliz ([8. eranskina](#)).

Aurkezpenean landuko diren atalak:

1. Antzerkia

- a. Zer da? Antzerkia norberaren portaerari buruzko hausnarketarako tresna da. Ispilu bat balitz bezala funtzionatzen du. Antzerkiaren lau oinarriak: mugimenduak, sentimenduak, sentsazioak eta pentsamenduak.
- b. Onurak:
 - i. Antzerkiak partaideei aukera ematen die parte-hartzaileei hirugarren pertsonan egoerak antzemateko eta bizitzeko.
 - ii. Gatazken edo egoeren barruan ematen diren portaera eta jokabide ezberdinei buruz hausnartu dezakete.
 - iii. Kontzientziazioa ekintzekin lantzeko eta jokabide propioak eta besteenak aztertzeke aukera ematen du.
- c. Lantzen diren gaitasunak:
 - i. Arazo/egoera beste perspektiba ezberdinetik aztertzeke gaitasuna: norberaren eta besteen esperientzietatik erlazionatzeko eta bestelako ikuspuntuak lantzeko gaitasuna.

- ii. Modu aktiboan entzuteko gaitasuna: lankidearen ekarpenak entzuteko eta modu kritikoan aztertzeko gaitasuna.
- iii. Ekintzen ondorioak kontuan hartzeko gaitasuna: egoera baten aurrean emandako erantzunaren ondorioak aztertzeko gaitasuna.
- iv. Soluzio edo erantzun posible ezberdinak proposatzeko eta pentsatzeko gaitasuna: egoerari, perspektiba anitzekin, erantzun ezberdinak emateko gaitasuna.

2. Antzerki foroa

a. Zer da? Antzerki Foroa protagonisten eta antagonisten arteko tentsioa edo gatazka erakusten duen antzezlan bat da, zapalkuntzan, jazarpean edo gizarte-egituran oinarritzen dena. Bizitza errealerako entsegu kolektiboa da, egunerokotasuneko agertokiak aurkezten direlako eta modu kolektiboan erantzun posibleak eman behar direlako.

b. Onurak

- i. Arazo sozialak eta kulturalak ikusarazteko aukera ematen du.
- ii. Pertsonen arazoez sentsibilizatzeko.
- iii. Errealitate desberdinak ikertzeko, hainbat testuingurutatik abiatuta, hizkuntza artistiko eta sinbolikotik abiatuta.
- iv. Gatazka eta testuinguru desberdinetarako konponbideak aurkitzeko.
- v. Gai sozial bati buruzko elkarrizketa komunak sustatzeko, prebenitzeko eta/edo eraldatzeko.

c. Lantzen diren esparruak

- i. Beren buruaren eta bestearen behaketa eta hausnarketa.
- ii. Norberaren eta besteen portaeraren azterketa eta hausnarketa.
- iii. Antzerki Foroaren helburua betetzeko behar denaren alde esku-hartzea, hau da, egoeran inplizituki parte hartzea.
- iv. Harreman-aukera desberdinak errepikatzea eta sortzea.
- v. Orainaldian bestearekin lan egitea: bat-batekotasunarekin modu seguruan jardutea eta bestearen proposamenetatik oinarrituz.

vi. Ekintzaren jatorriari buruz galdetzea, gatazkaren sustraiari buruz hausnartzea.

d. Metodologia

i. Espazio edo eremu bat sortu beharko da, ikasleak seguru eta lasai sentitzeko.

1. Oinarriak: antzerkiko ikusleek ez dute ohiko antzerkian duen rol berdina izango: ikus-aktore (“espec-actores”) deituko dira. Ikasleak izango dira antzezlanaren protagonistak.
2. Lehenengo, ikasleek antzezlanana sortuko dute, hau da, gidoia egin beharko dute.
3. Bukaera edo itxiera bat emango zaio antzezlanari. Itxiera horri “faltsua” deituko zaio. Ikasleek beste bukaera bat proposatuko dute, hau da, egoerari erantzun bat emango diote.
4. Ondoren, itxiera faltsu horrek interbentzio ezberdinak jaso eta gero, soluzio bat bilatuko zaio guztien artean, alegia, eskola jazarpen kasu baten aurrean zer nolako jarrera edo erantzuna eman behar zaion adostuko da.

Irakasleak adibideak jarri ahal ditu aurkezpenaren bukaeran, adibidez:

- Ikastolako haur batek beste bat iraintzen du. Ikusle guztiek ez dute ezer egiten, zer egingo genuke guk egoera horren aurrean? Zer nolako interbentzioa egingo genuke egoera bukatzeko?

Irakasleak aurkezpena egin ondoren, ikasleen zalantzak argituko ditu.

10. jarduera: antzerkia prestatzen.

Ondoren, ikasleek, aurkezpenean Antzerki Foroari buruz landu dena aurkeztu beharko dute. Laukotea edo boskotea, gehienez jota, jarriko dira eta eszena bat planteatu beharko dute jazarpen soziala eta ahozko jazarpena aurkezten duena. Egoerak ez errepikatzeko, irakasleak esleitu ahal ditu, adibidez:

- Erasotzaile batek haur txikiago bat iraindu.
- Erasotzaile talde batek pertsona bat baztertzen du.
- Erasotzaile talde batek pertsona bat iraintzen dute bere fisikoagatik.
- Erasotzaileak ikusleekin batera pertsona bati ez diote beraiekin jolasten uzten.

- Erasotzaile bat saiatuko da beste haurrak konbentzitzen beste haur bat iraintzeko. Adibide bat [15. eranskinean](#).

Egoerak ikastolan edota kalean eman ahal dira. Gidoi bat sortu beharko dute, gidoia egunerokotasunean dagoen egoera bat aurkeztuko du. Oso garrantzitsua izango da ikasleei azpimarratzea antzezten duten rola oso finkatuta izan behar dutela, eta horretaz gain, paperean sartu behar direla.

11. jarduera: Antzerki Foroa jazarpena prebenitzeko.

Behin eszena guztiak antolatuta banan-banan antzeztuko dira. Honako hau izango da erabiliko den metodologia:

1. Gelan eszenatoki bat sortu, mahaiak alde batera utzi eta tokia prestatu.
2. Borobil batean eseri klase guztia eta antzezten daudenak erdian kokatu.
3. Taldeak eszena antzeztuko du eta bukaeran irakasleak parte hartu gabe (lehengo eszenan gidari lana egin beharko du), ikasleak esku-hartu dezakete eta egoerari erantzun bat eman.
4. Eszena berriro antzeztuko da esku-hartu duen haurra barne egonda. Bukaera norbaiti ez baldin bazaio egokia iruditzen, esku-hartzeko aukera izango du.
5. Behin erantzun apropos bat bilatuta, arbelean idatziko dute eman dioten irtenbidea, 12. jardueran ondorioak ateratzeko.
6. Behin talde batek bukatuta, hurrengoarekin hasiko litzateke. Horrela, talde guztiak egin arte.

12. jarduera: ondorioak ateratzen.

Esku-hartzeari eta saioari bukaera emateko, debate/elkarrizketa bat sortuko da eta ondorio batzuk sortuko dira arbelean apuntatutako kontuan izanda. Hausnarketarako galderak egingo ditu irakasleak, hala nola:

- Nola sentitu zarete?
- Erraza izan da egoera guztiei erantzun edo irtenbide bat bilatzea?
- Zer ikasi dut?

Helburua da eskola jazarpena identifikatzeko eta prebenitzeko tresnak jasotzea. Orduan, egokiena izango litzateke saioa bukatzea galdera honekin:

- Zer nolako konpromisoa hartzen dut nirekin eta nire kideekiko?

Ebaluazioa

Irakasleak errubrika ([10. eranskina](#)) baten bidez (heteroebaluazioa), ikasleek izandako parte hartzea eta egindako antzezlanak ebaluatuko du. Bestalde, egindako lana taldeka diana ([9. eranskina](#)) batekin ebaluatuko da (koebaluazioa).

7. Orain, imajinatu patioan zaudela, egin marrazki bat sentitzen duzuna adierazteko; bakarrik zaude, lagunekin, haserre, urduri, pozik, lehiakor...; nagusiagoekin nago edo nire adinakoekin; materiala erabiltzen nabil edo materialik gabe jolasten dut?...

3. eranskina: Lehenengo saioaren behaketa taula (heteroebaluazioa)

Behaketa taula klase osoarentzat

Ebaluazio irizpideak	Talde handian lortu dira	Talde handian ez dira lortu	Modu aktiboan parte hartu duten pertsonak	Modu aktiboan parte hartu EZ duten pertsonak
Modu argian sentitutakoa adierazten dute.				
Beste batzuekin dituzten erlazioei buruz hausnartzen dute.				
Modu aktiboan parte hartzen dute eta zentzuko adierazpenak egiten dituzte.				
Norberak dituen ezaugarriak plazaratzen dituzte.				
Bakoitza taldean bere burua kokatzen dakite, gelako taldeak aztertuz.				




Iruzkinak edo aldatu beharreko prozedurak, galderak edo edukiak:

4. eranskina: emozioen taula

Izena:	Taldea:	Data:
--------	---------	-------




NOLA SENTITU NAIZ?

Nire buruari buruz hausnartzen dudanean




Zergaitik:

Nire izaerari buruz hausnartzen dudanean

Zergaitik:

Besteek nitaz pentsatzen dutenari buruz hausnartzean

Zergaitik:

Marrazkia egiterakoan

Zergaitik:

Saiotik gehien gustatu zaidana izan da...

5. eranskina: bizkarrean jartzeko adjektiboak

AHULA

LIDERRA

ALAIA

ARDURATSUA

GAFOTAS

POTOLOA

ARGALA

IRAINDUA

ERREFERENTEA

BAZTERTUA

LOTSATIA

JATORRA

LAGUNTZEKO PREST DAGO

ZIKINA

EDERRA

BEREKOIA

ZAHARRA

HAUR JARRERAK

ESKUZABALA

AUSARTA

FIDAGARRIA

DESATSEGINA

ITSUSIA


6. eranskina: metakognizio eskailera (autoebaluzioa)

Zenbakia:


Taldea:

Data:

1. Bete jarraian agertzen den galderen eskailera. Behetik gora bete beharko duzu, eskailera handitik txikira.



7. eranskina: metakognizio eskaileraren aurkezpena



8. eranskina: antzerki foroaren aurkezpena



Zer da antzerkia?

Antzerkia norberaren portaerari buruzko **hausnarketarako tresna** da.
Ispilu bat balitz bezala funtzionatzen du.

Portera eta jokabide ezberdinetaz hausnartu

Jokabide propioak eta besteenak aztertu



Hirugarren pertsonan egoerak aztertu

Lau oinarriak: mugimenduak, sentimenduak, sentsazioak eta pentsamenduak

Gaitasunak



01

Arazo/egoera beste perspektiba ezberdinetik aztertzeko gaitasuna

02

Soluzio edo erantzun posible ezberdinak proposatzeko eta pentsatzeko gaitasuna

03

Ekintzen ondorioak kontuan hartzeko gaitasuna

04

Modu aktiboan entzuteko gaitasuna





Zer da antzerki foroa?


Antzerkia **egiteko beste modu bat** da, non ikusleak antzerkian **parte hartzen** duten.

- Protagonisten eta antagonisten arteko gatazkak erakusten ditu
- Konponbideak aurkitzeko baliagarria
- Sentsibilizatzeko
- Ikusle-aktoreak barne hartzen ditu

Antzerki foroaren metodologia

- **Espazio** edo eremu bat **sortu** beharko da, ikasleak seguru eta lasai sentitzeko.
- Lehenengo, ikasleek **antzezlanaren sortuko** dute, hau da, **gidoia egin** beharko dute.
- Itxiera bat emango zaio antzezlanari. **Itxiera** horri “**faltsua**” deituko zaio. Ikasleek **beste bukaera bat proposatu**ko dute, hau da, egoerari erantzun bat emango diote.
- Ondoren, itxiera faltsu horrek interbentzio ezberdinak jasoko eta gero, **soluzio** bat bilatuko zaio guztien artean, alegia, eskola jazarpen kasu baten aurrean zer nolako jarrera edo erantzuna eman behar zaion adostuko da.

9. eranskina: diana (koibaluzioa)



10. eranskina: antzeztanak/partea-hartzea ebaluatzeko errubrika (heteroebaluazioa)

- Gela bakoitzean sei talde daudenez, sei errubrika beteko dira.

Talde bakoitzari buruz irakasleak egin beharreko errubrika:

1. Taldekideen izenak:

	Maila apala	Oinarrizko maila	Maila egokia	Maila bikaina
Edukia	Ez dituzte eskola jazarpenari buruzko egoerak antzeztu.	Eskola jazarpenaren egoera oso sinpleak eta eskas landuta aurkeztu dituzte.	Eskola jazarpenaren egoerak aurkeztu dituzte.	Eskola jazarpenaren egoera landuak eta modu oso argian aurkeztu dituzte.
Aurkezpenaren zuzentasuna	Aurkezpena modu desordenatuan eta korapilatsuan aurkeztuta dago.	Aurkezpena erdipurdika aurkeztuta dago.	Aurkezpena modu ordenatuan aurkeztuta dago.	Aurkezpena modu argian eta ordenatuan aurkeztuta dago.
Ulergarritasuna/ Ahoskera	Hitz egiterakoan zailtasunez ulertzen zaie. Eta ahoskoa modu korapilatsuan egin dute.	Ahozkoa modu ulergarrian baina txarto ahoskatuta eta trabekin egin dute.	Ahozkoa modu ulergarrian eta baina batzuetan trabekin ahoskatu dute.	Ahozkoa modu ulergarrian eta argian eta ondo ahoskatuta egin dute.
Hizkuntza	Lexiko pobrea erabiltzen dute eta ez dute era esanguratsuan adierazi nahi dutena esan.	Lexiko eta esaldi urriak erabili dituzte eta era nabarmenean adierazi dute.	Lexiko urria erabili dute, baina esaldiak oso ondo formulatuta eta modu oso esanguratsuan hitz egin dute.	Lexiko eta esaldi aberatsak erabili dituzte eta modu oso esanguratsuan hitz egin dute.

Nork parte hartu du gehien _____-ren taldeak antzeztu duenean?

Nork ez du inolako parte hartzerik egin?

11. eranskina: esku-hartzean zehar jasotako emaitzak

1. saioa:

Orokorrean saioaren ebaluazioa:

LH6A:

- Batzuen jarrera ariketarekiko ez da izan egokia hasieran, ez zuten ulertzen zergatik horrelako galderak egin behar zituzten.
- Galderak ulertzeko zailtasunak izan dituzte.

LH6B:

- Jarrera egokia aurkeztu dute gehienek lehenengo bi jarduerak aurkezterakoan.
- Oso parte hartzaile egon dira ia guztiak eta debatea oso eramangarria izan da.

LH6D:

- Orokorrean jarrera desegokia izan dute hasieratik. Nabaritzen da ostiral arratsaldea zela eta azken ordua.
- Batzuei kostatu zaie kontzentratzea eta barregura ematen zien jarduera.

Bukaerako emaitzak **helburu didaktikoen arabera:**

- **Norberaren ezaugarriei buruz hausnartzea**

LH6A: Hausnarketa egiteko gai izan dira, egia da, irakaslearen jarraibideak jarraitu direla hausnarketan zehar. Ez da egon horrelako bat-batekotasunik klasean orokorrean. Emozioei buruz hausnartu dute, azken jarduerari esker. Ez dute besteen lekuan jartzeko iniziatibarik izan.

LH6B: Hausnarketa egiteko gai izan dira, haiek izan dituzten emozioak plazaratu dituzte.

LH6D: Hausnarketa egiteko gai izan dira, haiek izan dituzten emozioak plazaratu dituzte. Batzuk ez dira oso parte hartzaile egon.

- **Beste batzuekin dituen harremanei buruz pentsatzea**

LH6A: Ez dute hausnarketan hitz egin, baina paperean haien harremanei buruz hausnartu dute.

LH6B: besteekin dituzten harremanei buruz hitz egin dute. Eta baita ere atera da gelan zer nolako egoera dagoen momentu honetan seigarren mailan. Esan dute oso zaila egiten zaiela batzuei harremanei buruz hitz egitea eta urduritasuna arrazoi batengatik izango zela.

LH6D: Besteekin dituzten harremanei buruz hitz egin dute. Eta baita ere atera da gelan zer nolako egoera dagoen momentu honetan seigarren mailan.

- **Autokontzeptua garatzea, besteengandik ezberdintzen diena (ezaugarriak, jarrerak, aspektu fisikoa) antzemanda**

LH6A: Hausnarketa jorratu da gelan, erantzun oso anitzak egon dira. Askok esan zuten kostatu zitzaizela haien buruan pentsatzea eta ez zekitela oso ondo zer nolako ezaugarriak ezberdintzen dituen. Paperean batzuk oso zehatzak izan dira, eta besteak aldiz oso gaineratik adierazi dute. Sakontasun falta nabaria izan da gela honetan.

LH6B/LH6D: Ez dute honi buruz hausnartu ahots altuan, egia da, paperean besteengandik ezberdintzen diena adierazi dutela. Batzuei kostatu zaie identifikatzea zer nolako ezaugarria dituzten eta ondorioz, besteengandik daukaten ezberdinak.

- **Nor bere burua hurbileko eremuan kokatzen ikastea**

LH6A: Sentimenduei buruz hitz egin dute paperean, batez ere marrazkian. Berrito ere, batzuk oso sakon hausnartu dute eta besteak aldiz gaineratik adierazi dituzte. Marrazkian lagunen artean kokatu dira eta zelan egoten diren azaldu dute.

LH6B/LH6D: Marrazkiaren bidez haien burua patioan dauden agunen arteko erdigunean kokatu dute. Baina hausnarketan ez da aipatu zer nolako sentimenduak dituzten talde erdian daudenean.

- **Norberaren emozioak eta sentimenduak hausnarketa**

LH6A: Ez dute hitz egin elkarrizketan haien emozioei buruz orokorrean. Egia da, batzuk zelan sentitu diren adierazi dute, baina oso gutxi. Marrazkian ez dute hitzez adierazi nola sentitu diren, bakarrik idatzi dut zer egiten duten.

LH6B: Emozioak aurkeztu dituzte, eskua altxatuta eta adierazi dituzte nahiz eta paperean agertu, zer nolako emozioak eta sentimenduak dituzten taldean eta pertsonalean.

LH6D: Emozioak aurkezteko zailtasunak izan dituzte, gidatuak izan behar izan dira galderen bidez.

- **Elkarrizketan parte-hartze aktiboa izatea**

LH6A: Gehiengoek parte hartu dute modu aktiboan. Beste batzuk galderen bidez bideratu ditut haien sentimenduak adieraztera.

LH6B: Parte hartze oso aktiboa izan dute orokorrean, debatea oso ondo joan da eta oso gustura egon dira hitz egiten.

LH6D: Parte hartze eskasa egon da, ez dute serio hartu eta hausnarketak ez dira izan nahi beste sakonak. Egia da batzuk parte hartu dutela.

2. saioa:

Bukaerako emaitzak **helburu didaktikoen arabera**:

- **Beste pertsona baten egoeran jartzea, rol edo jarrera ezberdinak antzeztuta**

LH6A: Oso ondo egin dute, adjektiboen arabera besteekin jokatu dute, besteen paperean jarri dira eta normalean ondo antzeztu dute, helburua lortu egin da.

LH6B: Ondo egin dute, adjektiboen arabera besteekin jokatu dute, besteen paperean jarri dira eta normalean ondo antzeztu dute, helburua lortu egin da.

LH6D: Oso ondo egin dute hau, adjektiboen arabera besteekin jokatu dute.

- **Txarto sentitzekotan adierazten jakitea**

LH6A: Ume bat txarto sentitu da egin bitartean, eta laguntza emateko prest zegoen pertsonari laguntza eskatu dio. Debatean sentitutakoari buruz hitz egin da eta hausnarketa sakona egin da.

LH6B: Ez dira txarto sentitu jarduera egin bitartean, baina debatean sentitutakoari buruz hitz egin da eta hausnarketa sakona egin da.

LH6D: Ikasle bat txarto sentitu da jardueran zehar eta ariketatik ateratzeko eskatu du. Txarto sentitu da esleitutako adjektiboarekin eta horregatik ez da guztiz eroso sentitu jardueran parte hartzeko.

- **Eskola jazarpenaren deskribapena osatzea**

LH6A: Eskola jazarpenaren definizio osatu da taldeen artean.

LH6B: Eskola jazarpenaren definizio osatu da taldeen artean.

LH6D: Ez da jazarpenaren definizioa osatu.

- **Ahozko jazarpena eta jazarpen soziala ezberdintzea**

LH6A: Bi jazarpen motak ezberdindu dituzte.

LH6B: Bi jazarpen motak ezberdindu dituzte.

LH6D: Ez dira bi jazarpen motaren definizioak osatu.

- **Bakoitzak sentitu dituen sentimenduak identifikatzea**

LH6A: Bakoitzak izandako eta sentitutako sentimenduak identifikatu ditu eta ahoz adierazi ditu.

LH6B: Bakoitzak izandako eta sentitutako sentimenduak identifikatu ditu eta ahoz adierazi ditu.

- Seigarren mailan dauden erasotzaileei adjektibo desegokiak eta desatseginak jarri zaizkie, baina antzerkia egiterakoan, klasekideak ez dira ausartu horri aurre egitera. Oso arraroa egin zait, baina espero nuen horrelako jarrera bat klasekideen partetik.

LH6D: Bakoitzak sentitutakoa adierazi du. Bakarrik adjektibo onak aipatu ditugu. Sortu den giro eta elkarrizketa oso interesgarria izan da.

- Lider negatibo oso “potente” bat dago kurtsoan eta horri buruzko hausnarketa bat egin zen. Hasi ziren hitz egiten “esclavo”ei buruz eta zer nolako jarrera zuten lider horrekiko. Neskak izan ziren gehien bat hasi zirenak elkarrizketan parte gehiago hartzen. Baina geroago azaldu zitzairen zer den “la espiral del silencio”. Eta orduan, liderraren jarraitzaile batek zera esan zuen: ez dugu beti esaten edo agintzen digutena egin behar, batzuetan ezetz esan behar da. Oso probetxugarria izan da elkarrizketa, eta oso ondo atera dela eta sortu diren ondorioak oso esanguratsuak eta garrantzitsuak direla uste dut.

3. saioa:

Orokorrean saioa:

LH6A: Kurtsoan erasotzaile taldean dauden umeak ez dute guztiz ondo egin lehenengo

jarduera, egoerena. Ez dira zintzoak izan.

LH6D: Hasteko, Eskola jazarpenaren deskribapena osatu genuen eta ahozko jazarpena eta jazarpen soziala ezberdinu genituen. Argi geratu zen jazarpenaren definizioa zein den eta baita ere, jazarpen mota ezberdinak.

Bukaerako emaitzak **helburu didaktikoen arabera:**

- **Jazarpenean ikuslearen rola identifikatzea**

LH6A: Ikusle ezberdinak identifikatu dituzte, oso egokia izan da pankarta egitea eta ikusle ezberdinak banan-banan aztertzea eta adibideak ematea.

LH6B: Ikusle ezberdinak identifikatu dituzte, oso egokia izan da pankarta egitea eta ikusle ezberdinak banan-banan aztertzea eta adibideak ematea.

LH6D: Lau rola identifikatu ditugu eta kartulinaran idatzi ditugu. Izen ezberdinak proposatu dituzte, baina beste geletakoekin bateratu ditugu.

- **Jazarpen egoerak aztertzea eta hartzen duten rola antzematea**

LH6A: Jazarpen egoerak aztertu eta landu dira. Antzeman dute zer nolako ikusle rola hartzen den normalean kurtsoan, eta bakoitzak **hartzen duen** rola adierazi du. Saioa bukatzerakoan zein rol hartu **nahi** duten adierazi dute. Ikusle defendatzailea izan nahi direla adierazi dute gehienek, batzuk, aldiz, ikusle neutroa izan nahi dutela adierazi dute.

LH6B: Jazarpen egoerak aztertu eta landu dira. Azken hausnarketan ondo atera da, ikasleek parte hartu dute eta bakoitzak hartuko zuen rola adierazi dute.

LH6D: Jazarpen egoerak aztertu dira eta horren ostean bakoitzak zer nolako ikusle rola hartzen duen adierazi du. Saioa bukatzerakoan zein rol hartu nahi duten adierazi dute. Ikusle defendatzailea izan nahi direla adierazi dute gehienek, besteek ez dute parte hartu.

- **Besteenganako pertzepzioa hobetzea eta taldekidearen ezaugarri onak antzematea**

LH6A: Jarduera hau oso ondo atera da, helburuak lortu dira, eta bakoitzak bere kideak daukaten pertzepzio ezberdina antzeman dute. Batzuk esan dute, ez zekitelarik klasekideek horrela ikusten zirela.

LH6B: Jarduera hau oso ondo atera da, helburuak lortu dira, eta bakoitzak bere

kideak daukaten pertzepzio ezberdina antzeman dute. Batzuk harituta geratu dira jaso dituzten adjektibo positiboekin.

- Ikasle batek zera esan zuen: “momentu honetan antzeman dut gelan kide onak ditudala eta horrela ikusten nautela, lagun bat hemen daukate”.

LH6D: Taldekideen ezaugarri onak antzeman dituzte, eta ondoren ondorioztatu dugu oso erraza dela anonimoki eta bizkarrean gauza onak jartzea, baina zer gertatzen den norbaiten ezaugarri onak antzeman edo defendatu behar ditugunean erasotzailearen aurrean.

- **Taldeko partaide sentitzea**

LH6A: Orokorrean taldeko partaide sentitu dira klasekide guztiak, giro oso ona sortu delako saioan guztion artean eta bakoitzak hartu nahi duen ikusle rola azaleratu du.

LH6B: Orokorrean taldeko partaide sentitu dira klasekide guztiak, giro oso ona sortu delako saioan guztion artean eta bakoitzak hartu nahi duen ikusle rola azaleratu du.

LH6D: Mezuei esker taldeko partaide sentitu dira. Gainera, tertulia edo debatea guztiz erabilgarria izan da. Batzuk aurkeztu duten jarrera izan da pasotismoarena. Eta zurrumurruetan aritu dira gai honi buruzko bestelako gauzetan pentsatzen.

Azpimarratu da nahi eta beharren arteko ezberdintasuna, baita ere “entre broma y broma la verdad se asoma” eta “la espiral del silencio” zer den. Nabaritzen zen ikasle batzuk konpromisua hartu dutela. Saioan baita ere ikasleek esan zuten, biktima babestu baino lehen egoeraren berri izatea oso garrantzitsua zela eta argi izan behar zutela nor den biktima eta nor erasotzailea. Hau da, eraso detektatzea eta ondoren biktima laguntzea eta ikusle defendatzailearen rola hartzea.

4-5 saioak:

Bukaerako emaitzak **helburu didaktikoen arabera:**

- **Antzerkiaren onurak antzematea**

LH6A: antzerkiaren onurak antzeman zituzten aurkezpenari esker. Haurrek Antzerki Foroaren metodologia eta ezaugarriak hobeto ulertu zituzten.

LH6B: antzerkiaren onurak antzeman zituzten irakasleak egindako aurkezpenari esker eta ondoren, Antzerki Foroaren metodologia zer zen ulertzea gehiago kostatu

zitzaien.

LH6D: antzerkiaren onurak antzeman zituzten aurkezpenari esker. Hurrek Antzerki Foroaren metodologia eta ezaugarriak hobeto ulertu zituzten.

- **Talde lanean aritzea**

LH6A: talde lanean aritu ziren antzerkia sortzerakoan eta egiterakoan. Taldekideen arteko komunikazioa ona izan zen eta haien artean ulertzera heldu ziren.

LH6B: talde lanean aritu ziren saioaren hasieratik bukaerara arte. Taldeko komunikazioa ezinbestekoa izan zen ariketa egiteko.

LH6D: taldean oso ondo aritu ziren eta proposamen ezberdinen aurrean, taldean erabakiak hartu zituzten.

- **Eszenak jazarpen sozialarekin eta ahozko jazarpenarekin erlazioa izatea**

LH6A: eszenek eta gidoiak ahozko jazarpenarekin eta jazarpen sozialarekin erabateko lotura zuten. Gainera, jazarpen fisikoa ere sartu egin zuten eszena ezberdinetan.

LH6B: eszenek jazarpen mota ezberdinekin lotura zuten. Aipatzekoa da, hasiera batean jazarpen fisikoa behin eta berriz antzezten hasi zirela eta egoeretatik eta hildotik desbideratu zirela. Baina, zuzenketa batzuen ostean jazarpen soziala eta ahozko jazarpenarekin bat egiten zituzten eszenak antzeztu zituzten.

LH6D: eszenek eta gidoiak ahozko jazarpenarekin eta jazarpen sozialarekin erabateko erlazioa zuten. Gainera, jazarpen fisikoa ere sartu egin zuten eszena ezberdinetan.

- **Elkarrekiko errespetua mantentzea.**

LH6A: elkarrekiko errespetua mantendu zen jarduera osoan zehar. Haien artean errespetuz hitz egin zuten.

LH6B: jardueran zehar errespetu falta batzuk egon ziren, baina orokorrean, errespetuz jokatu zuten eta elkarrizketak errespetuzkoak izan ziren.

LH6D: momentu oro elkarrekiko errespetua egon zen antzezlanetan zehar. Txandak errespetatu zituzten eta erabiltzen zuten hizkuntza eta hitz egiteko modua aproposa izan zen.

- **Eszenak modu egokian antzeztea.**

LH6A: eszenak modu argian eta egokian antzeztu ziren. Ulergarriak izan ziren ikusleentzat eta egoera zein zen argi utzi zuten.

LH6B: eszenak modu argian eta egokian antzeztu ziren. Ulergarriak izan ziren ikusleentzat eta egoera zein zen argi utzi zuten.

LH6D: eszenak modu argian eta egokian antzeztu ziren. Ulergarriak izan ziren ikusleentzat eta egoera zein zen argi utzi zuten.



- **Parte-hartzea sustatzea.**

LH6A: parte-hartze handia egon zen eszena bakoitzari erantzuna ematerakoan. Gelako bik ez zuten ia parte hartu, esan zutelako jende asko interbentzioa egiten zegoelako edo ez zutelako parte-hartu nahi eszena horietan.

LH6B: parte-hartzea orokorrean ugaria izan zen, baina egia da, espero zena baino eskasagoa izan zela. Dena den, parte-hartu ez zutenen kopurua 4 izan zen, hau da, gelako % 2-a.

LH6D: parte-hartze handia egon zen jarduera osoan zehar. Erantzun edo irteenbide posible bat emateko interbentzio ugaria egon zen. Gelako giroan horrek lagundu zuen eta azken elkarrizketan aipatu ziren irteenbideak oso esanguratsuak izan ziren. Adibidez: biktima babestuko zutela, denon arteko errespetua mantendu behar zela, etab.

12. eranskina: eskola jazarpenari buruzko posterra



13. eranskina: ikusle ezberdinen posterra

IKUSLEA

Ikusle gaizkidea: erasotzaileak egiten duena babestuko du.
 Hasieran aipatutako erasotzaile positiboa izango dena.

Ikusle tolerantia: Ez du zuzenean biktimak erasotzen baina gertatzen dena ezagutzen du eta onartzen du.

Ikusle neutroa: Parte hartze zuzena arazoarekin ekiditen dutenak dira jakinda jazarpena gertatzen ari dela.

Ikusle defendatzailea: biktimak babestuko du eta irakasleak jazarpenaren barri erango die.

ZER EGIN AHAL DUGU?

- Detekzioa = arazoa identifikatu.
- Gelaletzea = MATEA.
- Irakasleari eraman.
- Biktimarekin egon.
- Lagundu.
- Erasotzailearen aurka joan.
- Ikusle laguntzaileak.
- Babestu.

IKUSLEAK:

Gaizkidea:	Tolerantia:	Neutroa:	DEFENDATZAILEA:
• Erasotzaileak egiten duena babestuko dugu Hasieran aipatutako erasotzaile positiboa izango dena.	• Ez du zuzenean biktimak erasotzen baina gertatzen dena ezagutzen du.	• Parte hartze zuzena arazoarekin ekiditen dutenak dira jakinda jazarpena gertatzen ari dela.	• Biktimak babestuko du eta irakasle jazarpenaren barri erango die.

ZER EGIN ?

DEFENDATU

BABESTU

IKUSLE LAG. ← LAGUNTZA ESKATU → IRAKASLE

IKUSLEA

Ikusle gaizkidea: erasotzaileak giten duena babestuko du. Hasieran aipatutako erasotzaile pasiboa izango dena.

Ikusle tolerantia: ez du zuzenean biktimia erasotzen baina gertatzen dena ezagutzen du eta onartzen du.

Ikusle neutroa: parte hartze zuzena arazoarekin erakusten dutenak dira jarduera jasarpenera gertatzen ari dela.

Ikusle defendatzailea: biktimia babestuko du eta irakasleei jazarpenaren berri emango die.

- Biktimia lagundu
- Laguntza eskatu
- Erasotzaileari aurre egin

- Biktimia BABESTU eta DEFENDATU

15. eranskina: jazarpen egoeraren gidoiaren adibidea

███ Tia, esan behar diogu pringatu horren lan zimura egiteko.

███ Ia tia, barre batzuk batuko ditugu.

███ Joan atola horren gona eta esan estanda egingo duela.

███: Em... baina terain ez du ezer egin.

███: Ia zue guayekin esan nahi duzu?

███ Hasi, hasi

███ Eee, bai.

███ Zazul.

███ urbiltzen da ███ren gona.

███ Eee gizona bat...

███ Animal

███ Super lodi zande

███

███ Forman nago

███ Gainera, egun baten estanda egingo duzu

███: ez behitu.

Taizten da

BARREZUA HASI